

ERTZAINZAN  
EUSKARAREN  
ERABILERA  
NORMALIZATZEKO  
II. PLANA  
2018-2022





Irakurle agurgarria:

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plangintzaldi honetan jauzi esanguratsu bat eman nahi dugu. Orain arte ondo egindakoak sendotu eta hobetu beharreko alderdiak hobetzeko bideak jarri nahi ditugu, betiere herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea helburu. Izan ere, euskal gizartea gero eta euskaldunagoa da eta gizartearen zerbitzura lan egiten dugun erakundea izanik, hori zor diogu.

Bi arrazoi nagusi ditugu horretarako: batetik, gero eta euskaldunagoa da Ertzaintza eta, bestetik, plangintzaldi hau indarrean dagoen bitartean inoizko belaunaldi-aldaketarik handiena izango du Ertzaintzak, egun lanean dauden milaka ertzainek erretiroa hartuko dutelako. Asko ikasi eta aurreratu dugu urte hauetan guztietan eta belaunaldi berrietan gero eta gehiago dira euskaraz ondo moldatzen diren ertzainak. Egoera hau aprobetxatu nahi dugu, herritarrei hurbileko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzen jarraitzeko, baita euskararen ikuspegitik ere.

Horretarako, sakondu egin nahi dugu orain arteko bidean, elementu hauetan indarra eginez: ertzainen euskara-gaitasuna handitzen jarraitu; euskararen erabilera sustatzen jarraitu, lankideekin eta herritarrekin; euskararen kudeaketa Ertzaintzako ohiko kudeaketa-sisteman txertatu; eta, informazio- eta komunikazio-estrategia eraginkorrek garatu.

Hirugarren plangintzaldi hau, beraz, trantsizio gisa planteatu dugu, orain arte lan egiteko moldeetatik Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak ezartzen dituen irizpideen arabera lan egitera iristeko eta, betiere euskara ere Ertzaintzan ohiko lan-hizkuntza izatea lortzeko.

Eta alde horretatik, hainbat faktore ditugu gure alde: gizartea gero eta euskaldunagoa da eta ondorioz, gero eta gehiago eskatzen du euskal administrazioarekin harremana euskaraz izatea; gero eta baliabide eta teknologia hobeak ditugu euskara hobetzen jarraitzeko eta euskaraz lan egiteko; ertzaingaiak gero eta euskaldunagoak dira; Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia ertzain izateko ikasgaiak euskaraz eskaintzeko aurrerapauso handiak egiten ari da; eta, Ertzaintza osatzen dugun guztiok bat egiten dugu txosten honetan jasotzen diren helburu eta egitekoekin.

Plangintzaldi honen erronkak eta jomugak, beraz, zehatzak eta argiak dira: Ertzaintzak euskaraz ere lan egitea eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.

Asmo handi hauek gauzatzeko, ondorengo lerroetan, plangintzaldiko lehen bost urteetarako plana aurkezten dizugu, Segurtasun Sailaren Zuzendaritza Batzordeak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bileran onetsi zuen Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana (2018-2022), hain zuzen ere.

Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz  
Segurtasuneko Sailburua

e





ERTZAINZAN  
EUSKARAREN  
ERABILERA  
NORMALIZATZEKO  
II. PLANA  
2018-2022



# Aurkibidea

<b>1.</b>	<b>SARRERA</b>	<b>08</b>
1.1	<b>Aurrekariak</b>	<b>08</b>
1.1.1	Plangintzaldiak eta planak	08
1.1.2	Euskara-politikak Ertzaintzan	08
1.2	<b>Testuingurua</b>	<b>10</b>
1.3	<b>Ertzaintzaren antolamendua</b>	<b>13</b>
1.3.1	Ertzaintzaren antolamendua	13
1.3.2	Ertzaintzaren organigrama	14
<b>2.</b>	<b>PROZESUAREN DESKRIBAPENA. METODOLOGIA</b>	<b>15</b>
2.1	<b>Metodologia</b>	<b>15</b>
2.1.1	Landa-lanaren antolamendua	16
2.1.2	Euskara Planaren garapena	17
<b>3.</b>	<b>GAUR EGUNGO EGOERA. DIAGNOSTIKOA</b>	<b>18</b>
3.1	<b>Informazio kuantitatiboa</b>	<b>18</b>
3.1.1	Ertzaintzako lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta ertzainek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak	18
3.1.2	Ertzain-etxeetako hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila udalerrietako indizearekin alderatuta	19
3.1.3	Derrigortasun-datak	20
3.1.4	Euskara-ikasleen bilakaera	21
3.1.5	Zerbitzu-hizkuntza (hizkuntza-paisaia, argitalpenak eta webgunea)	21
3.1.6	Lan-hizkuntza indartzeko baliabideak	22
3.1.7	Euskara-kexak	22
3.1.8	Planaren egitura	23
3.1.9	Ekintza osagarriak	23
3.2	<b>Informazio kualitatiboa</b>	<b>25</b>
3.2.1	Orain arteko ibilbidea	25
3.2.2	Euskararen kudeaketa-sistema	25
3.2.3	Komunikazioa	26
3.2.4	Euskara-gaitasuna eta -erabilera	26
3.2.5	Erakundearen irudia	26



# Aurkibidea

<b>4.</b>	<b>2018-2027 PLANGINTZALDIA</b>	<b>28</b>
<b>4.1</b>	<b>Sarrera</b>	<b>28</b>
	4.1.1 Helburu nagusia	28
	4.1.2 Ardatzak eta erronkak	30
	4.1.3 Epealdia eta irizpide nagusiak	31
<b>4.2</b>	<b>Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana</b>	<b>32</b>
	4.2.1 Helburu nagusiak	32
	4.2.2. Ekintza nagusiak	32
	4.2.3 Mugarri nagusiak	34
	4.2.4 Antolaketa-egitura	36
<b>4.3</b>	<b>Ekintzak, erronken eta ardatzen arabera sailkatuta</b>	<b>39</b>
	4.3.1 Lehenengo ardatza	39
	4.3.2 Bigarren ardatza	40
	4.3.3 Hirugarren ardatza	41
	4.3.4 Laugarren ardatza	43
<b>4.4</b>	<b>Segimendua eta ebaluazioa</b>	<b>44</b>
	4.4.1 Aginte-panela	45
	4.4.2 Kudeaketa-planaren betetze-maila	45
<b>5.</b>	<b>ERANSKINAK</b>	<b>48</b>
<b>5.1</b>	<b>Ertzaintzaren unitateen sailkapena, interbentzio-lehentasunaren arabera</b>	<b>48</b>
<b>5.2</b>	<b>Ertzaintzaren unitateen sailkapena, hizkuntza-izaeraren arabera</b>	<b>50</b>
	5.2.1 Sarrera	50
	5.2.2 Sailkapena	52
<b>5.3</b>	<b>Ertzain-etxeetako mugapeak</b>	<b>70</b>
<b>5.4</b>	<b>Konpromiso ekonomikoa</b>	<b>72</b>

# 1. Sarrera

## 1.1 Aurrekariak

### 1.1.1 Plangintzaldiak eta planak

Ertzaintzan euskararen normalkuntza-prozesua arautzen duen otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuaren 7.1 artikulua hizkuntza-normalizazioaren prozesua hamar urteko plangintzaldietan antolatu du, eta aldi horietako bakoitza bost urteko etapa bitan banandu.

Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian ondorioztatzen da Ertzaintzako hizkuntza-normalkuntzarako prozesuaren lehen plangintzaldia hasteko eguna 1998-09-01a izan zela; beraz, 1998. urtetik 2007. urtera arte iraun zuen Ertzaintzan Euskararen Normalizazioaren Lehen Plangintzaldiak.

Ondoren, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duen maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuaren lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak interpretatuta, bigarren plangintzaldiko bigarren etapa 2017an bukatu zen (2008-2017 Ertzaintzan Euskararen Normalizazioaren Bigarren Plangintzaldia).

Oraingo honetan, Ertzaintzako Hizkuntza Normalizaziorako Hirugarren Plangintzaldia (2018-2027) hasi dugun honetan, lehen bost urteko etapari dagokion Ertzaintzan Euskara Normalizatzeko Plana aurkeztuko dugu. Plan hori Ertzaintzaren hizkuntza-politikaren bigarrena izango da. Aurreneko plana, lehena, bigarren plangintzaldiaren bigarren etapakoa izan zen (2013-2017).

Aipatutako lehenengo plana aurrerapauso handia izan zen Ertzaintzaren hizkuntza-politiketan. Horregatik, Segurtasun Sailak Ertzaintzan oraindik berria den bide honetatik jarraitu nahi du. Hamar urteko plangintzaldiaren barruan plan eraginkorrak diseinatu eta abian jarriko ditu bost urtean behin, euskararen erabilera indartzeko.

### 1.1.2 Euskara-politikak Ertzaintzan

Ertzaintzan euskararen kudeaketa zehar-lerrotzat hartu nahi den une honetan, orain arte egin diren urratsak aintzat hartu behar dira. Hizkuntza-politikan, orain arte hartutako neurriei esker gaude orain gauden tokian.

Euskararen kudeaketan hiru aro nagusi bereizi ditzakegu:

#### Lehenengo Plangintzaldia 1998-2007

Epealdi honek Ertzaintzaren egituraketa-prozesuarekin bat egiten du. Ertzaintzaren lehen hizkuntza-eskakizuna (B2) indarrean jartzearekin batera, euskararen ezagutza handitzeko dinamikari hasiera eman zitzaion. Ehunka ertzain euskalduntzera bideratu ziren. Ertzaintzan euskaraz gaitzeko prozedura honek lau oztopo nagusi izan zituen: kideen jatorriaren arabera euskaldunen kopurua oso baxua zela, euskara ikasteko liberazioetan ezin zirela (eta ezin direla) langileak ordezkatu, egituratze-prozesuak eragozpenak sortzen zituela (toki-aldaketak, espezialitate eta kategoria berrietarako ikastaroak...) eta egoera soziopolitikoak zerbitzu polizialen premiak sorrarazten zituela. Hala eta guztiz ere, 1.250 ertzain, lanordu barruan, euskalduntzen ibili ziren.





# 1. Sarrera

## 1.1 Aurrekariak

### **Bigarren Plangintzaldia 2008-2017**

Ertzaintzaren egituraketa bukatu zen epealdi honetan. Urte hauetan, Segurtasun Sailak Lehenengo Plangintzaldiko zenbait jarduni eutsi zion, eta, horrez gain, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duen maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretua eta Segurtasun Sailaren Euskararen Erabilera Plana (2013-2017) argitaratu zituen. Aipatutako dekretuaren aldaketa nagusia izan zen Ertzaintzaren 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak Europako Hizkuntzarako Erreferentzia Esparru Bateratura moldatu eta indarrean sartu zirela, derrigortasun-datak jartzeko bost urteko epealdiak ezarri zirela, eta Ertzaintzako kideek IVAPek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatzen dituen deialdietan parte hartzeko aukera eman zela. Beste alde batetik, Ertzaintzaren Lehenengo Euskararen Erabilera Plana onartzeak berekin ekarri zuen euskararen gaietarako ibilbide-orria izatea. Ibilbide-orri horrek ekintza positiboen sorta zabala diseinatu zuen, herritarrak aukeratzen duen hizkuntza ofizialean lan egiteko gauza izango den Ertzaintza lortzeko.

### **Hirugarren Plangintzaldia 2018-2027**

Ertzaintzan belaunaldi-aldaketaren plangintzaldia izango da. Ertzaintzan lanean hasiko diren ertzain elebidunentzat erakunde elebiduna prestatuko da. Horrekin, euskaraz ere zerbitzua emateko gai den Ertzaintza lortzearekin batera, Ertzaintza euskaldunaren irudia lortuko da. Hizkuntza-berdintasunaren aldaketa lortzeko, euskararen kudeaketa integratuaren sistema erabiliko da. Ertzaintza euskal gizartean (eta batez ere euskal administrazioetan) erabiltzen diren euskara kudeatzeko sistemetara hurbilduko da datozen hamar urteotan. Ertzaintzan euskararen kudeaketa zehar-lerro bezala sartuko da. Bide berri horretan lanean hasteko, Segurtasun Sailak Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana prestatu du, datozen bost urteetarako.

# 1. Sarrera

## 1.2 Testuingurua

Orain arte ikusi ahal izan den bezala, hainbat berezitasun izan ditu Ertzaintzaren Euskararen Erabilera Planak Eusko Jaurlaritzako beste sail edota herri-administrazioekin alderatzen badugu. Aurreko bi plangintzaldietan, ertzainen hizkuntza-gaitasuna areagotzera bideratutako neurriak finkatzeko ahaleginetan jardun izan da, nagusiki; hiru bloke nagusi hauetan:

- o Hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ezartzea
- o Euskara ikasteko aukerak erraztea
- o Ertzaintzaren irudi korporatiboa ele bietan jartzea

Jakina, horrekin batera beste hainbat arlo landu dira, hala nola, itzulpenak, argitalpenak, webguneak, kanpo-agerraldiak eta abar.

Eta bada beste alde bat Ertzaintzaren Euskara Sustatzeko Plangintzaldiaren eta Jaurlaritzak sustatzen dituenen artean: Ertzaintzaren Plangintzaldiak 10 urtekoak dira eta Eusko Jaurlaritzakoak

5 urtekoak. Ildo horretatik, argitu beharra dago, Ertzaintzaren III. Plangintzaldia den honetan, Eusko Jaurlaritzaren VI. Plangintzaldia dagoela indarrean. Baina Ertzaintzaren plangintzaldiak bost urteko bi euskara-planen bidez kudeatuko direnez, bat egiten dute Ertzaintzaren II. Euskara Planak eta Eusko Jaurlaritzaren VI. Plangintzaldiak. Ikusi argiago ondorengo taulan:

PLANGINTZALDIEN ARTEKO ALDERAKETA		
ERTZAINZA	Ertzaintzaren III. Plangintzaldia (2018-2027)	
	(2018-2022)	(2023-2027)
	Ertzaintzaren II. Euskara Plana	Ertzaintzaren III. Euskara Plana
EUSKO JAURLARITZA	Eusko Jaurlaritzaren VI. Plangintzaldia	Eusko Jaurlaritzaren VII. Plangintzaldia

Hirugarren plangintzaldi hau trantsizio gisa planteatu da, orain arte lan egiteko moldeetatik Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak ezartzen dituen irizpideen arabera lan egitera iristeko. Trantsizio hori helburu izanik, Eusko Jaurlaritzaren plangintzaldien helburuei erreparatuko diegu; hauxe da azken bi plangintzaldietako helburu nagusia: euskara ere ohiko lan-hizkuntza izatea eta Administrazioan bi hizkuntzen berdintasunera jotzea.

Horrekin batera, aurrera begira ezartzen diren erronka nagusiak behar bezala identifikatzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzaren VI. Plangintzaldiaren txosteneko hiru aipu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- 1) “Administrazio honek zabaldu behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera, betiere urratsez urrats eta eragile guztien adostasunaz. Demokratikoa eta eraginkorra izan behar du burutu behar den prozesu honek: herritarren hizkuntza-aukera beti eta ororen gaineratik errespetatu beharko du, herritarrei deserosotasunik eragin gabe errespetatu ere”.
- 2) “Euskarak ere benetako lan-hizkuntza behar du izan. Horretarako, sail bakoitzak eta erakunde autonomiadun bakoitzak bere hizkuntza-egoera sakon aztertu eta erabakiko du zeri heldu, modu errealistan, baina baita nork eman ahal duen guztia bere buruari eskatuz ere. Argi dago honelako erronkei poliki-poliki eta akordioaren bidetik egin behar



# 1. Sarrera

## 1.2 Testuingurua

zaiela aurre; argi dago, era berean, sailek eta erakunde autonomiadunek erabakiko dutela zein izango den euren planen helmuga eta abiadura; baina gutxienero batzuk jarri beharra dago, eta hartara, plan honetan jasotakoa”.

- 3) “Erabilera Planak langile eta erakunde-ordezkariek guztiei eragingo die: alde batetik, langile gehiagok izango dute zuzeneko eginkizuna erabilera-planetan, langile horien komunikazioek izango dute lehentasuna, eta berariazko hizkuntza-prestakuntza eta trebakuntza eskainiko zaizkie hautatutako zereginak euskaraz egiteko. Bestaldetik, erakunde ordezkariek inplikazio zuzenagoa izan behar dute erabilera-planen diseinuan eta eguneroko kudeaketan. Hori guztiori, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak oinarri eta helmuga harturik”.

Horrekin batera, azpimarratu beharra dago, gaur egun, arlo sozioekonomikoan ohikoak direla kudeaketa aurreratua, kalitatea, ingurumena, gizarte-erantzukizuna, genero-berdintasuna, lan-arriskuen prebentzioa edota berrikuntza kudeatzeko sortu diren jardun-ereduak. Eredu horien ezaugarrietako bat da, esaterako, zehar-lerroak diren gaiak modu integratuan kudeatzea.

Hori da, hain zuzen, EME (Erreferentzia Marko Estandarra) ereduaren helburu nagusia: lan-munduan euskara ere modu integratuan kudeatzea, eta horretarako sortu zuen Euskalitek Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean BIKAIN ebaluazio-sistema. BIKAIN ereduak EME du ardatz eta jardun-eredu horren ebaluazioa eta hobekuntza kudeatzen ditu, betiere ezarritako helburuetan aurrera egiten laguntzeko.

EMEk bi ardatz nagusi ditu: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza. Zerbitzu-hizkuntzak bi azpiardatz ditu eta lan-hizkuntzak lau. Ikusi modu sintetikoan, EMEk kudeatzen dituen atributuak:

EME, ERREFERENTZIA MARKO ESTANDARRA	
ZERBITZU-HIZKUNTZA	
<b>1. Erakundearen irudia</b>	1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak
	1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak
	1.3. Ingurune digitala
<b>2. Herritarrekiko harremanak</b>	2.1. Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua emateko orduan
	2.2. Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan
LAN-HIZKUNTZA	
<b>3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak</b>	3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia
	3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala
	3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala
	3.4. Baliabide informatikoak

# 1. Sarrera

## 1.2 Testuingurua

<b>4. Pertsonen kudeaketa</b>	4.1. Pertsonen kudeaketa
	4.2. Laneko prestakuntza
<b>5. Kanpo-harremanak</b>	5.1. Administrazioa
	5.2. Erakunde pribatuak
	5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak...
<b>6. Kudeaketa-sistema</b>	6.1. ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea
	6.2. HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea
	6.3. PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea

Plangintzaldi honetan, beraz, egungo lan egiteko moldeetatik EMEn eredura igarotzeko trantsizioa egingo da. Aldaketa horrekin bi erronka nagusi jarri dira jomugan:

- 1) Ertzaintzaren Euskara Plana modu integratuan lantzea, euskararen normalizazioa lortzeko landu beharreko elementu guztiak aintzat hartuz
- 2) Euskararen kudeaketa Ertzaintzaren ohiko kudeaketa-sisteman integratzea

Eginkizun horri ekiteko Erreferentzia Marko Estandarraren (EMEn) ereduari atxikiko zaio plangintzaldi honetan. Horretarako, Ertzaintzako eragile guztiak aintzat hartzeko eta elkarlanean jarduteko ahalegina egingo da, betiere lehentasunezko unitateetatik abiatuta. Unitate horietan esperientzia pilotuak garatuko dira eta haietan ikasitakoetatik gainerakoetara hedatuko.

Plangintzaldi honen erronkak eta jomugak argiak dira: Ertzaintzak euskaraz ere lan egitea eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu ahal izatea.

# 1. Sarrera

## 1.3 Ertzaintzaren antolamendua

### 1.3.1 Ertzaintzaren antolamendua

Ertzaintzaren gaur egungo antolamendu nagusia Segurtasuneko sailburuaren 2013ko azaroaren 20ko Aginduak ezartzen du. Bertan azaltzen den egiturak bi atal izango ditu: Herritarren Babeserako Atala eta Ikerketa Kriminalerako Atala. Gainera, Inteligentzia Bulego Nagusia sortu zen, Ertzaintzaren xede orokorra lortze aldera, bi atalei laguntzeko.

Ertzaintzaren antolamendu zentralari dagokionez, aipatutako bi atal horietaz eta Inteligentzia Bulego Nagusiaz gain, zuzenean Ertzaintzaren Burutzaren mende egongo dira Idazkaritza Nagusia eta Prestakuntza Koordinatzeko Zerbitzua eta AKZ Nagusia.

Herritarren Babeserako Atalaren barruan, lurralde-burutzen inguruko arduraz gain, nabarmentzekoa da lurretako eta Berroziko polizia-zentroetan dauden unitateen kudeaketarekin bat egitea, eta, horren ondorioz, bi burutza nagusi sortu dira. Burutza horiek Ertzaintzaren beste zerbitzu eta unitate batzuentzat lagungarri eta osagarri gisa ari diren zerbitzu espezializatuak dituzte.

Beste alde batetik, trafikoko lurralde-unitateen bitartez trafikoaren kontrolari eta bide-segurtasunari buruzko politikak eta jarraibideak ezarri eta horien berri emateko, Trafikoko Burutza Nagusia sortu zen.

Ikerketa Kriminalerako Atalaren barruan bi burutza eratu ziren: Ikerketa Kriminal eta Polizia Judiziala, eta Polizia Zientifikoarena. Lehenengoaren barruan zerbitzu hauek daude: delitu-era konplexuak ikertzeko zerbitzu espezializatuak, organo judizialei eta fiskaltzei atxikitako polizia judizialari dagozkion zerbitzuak eta koordinazio operatiborako eta teknikorako beste zerbitzu nagusi batzuk. Bigarrena, berriz, kriminalistikako edo ikerketa teknikoko zerbitzuak emateaz arduratuko da. Gainera, atal honi Joko eta Ikuskizun Unitatea eta Segurtasun Pribatuko Unitatea atxiki zaizkio.

Inteligentzia Bulego Nagusia dugu, lurralde- edo toki-mailan garatutako analisi eta inteligentzia eginkizunekin batera, Herritarren Babeserako Atalaren eta Ikerketa Kriminalerako Atalaren ardatz egituratzailea.

Antolamenduaren organo nagusiak Ertzaintzaren Zuzendaritzaren titularrari zuzenean atxikitako bi zerbitzuek osatzen dituzte. Hona hemen: Barne Arazoetarako Zerbitzua eta Erakunde Harremanetarako eta Komunikaziorako Zerbitzua. Lehenengoak orain arteko diziplina-unitatea ordeztu du, eta bigarrenak, aldiz, herritarrei zerbitzu eraginkorra eskaini ahal izateko kanpoko elkartasuna eskuratzeko beharrianak beteko ditu.

Berregituraketaren premisetako bat da erakundeak hurbildu egin behar duela zerbitzatzen duen gizartera. Horregatik, ertzain-etxe bakoitzaren mugape-mailan zein lurralde-burutzen mailan, eskuratzen ditu bere eskumeneko lurraldean polizia-ardura osoa hartzeko beharrezko baliabide eta zerbitzu guztiak.

Hori horrela, lurralde-burutzen menpe, dagozkien ertzain-etxeez gain, hainbat lurralde-zerbitzu eta unitate egongo dira: herritarren babesa, ikerketa kriminala, inteligentzia, aginte- eta kontrol-zentroa eta trafikoa. Horrek ez du eragotziko Aginduan lurralde-burutza bakoitzean berariazko beste zerbitzu, unitate edo sekzio batzuk aurreikustea.

Ertzain-etxeak dira herritarrengandik hurbilen dauden polizia-unitateak; hori dela eta, dagokien lurralde-eremuan modu orokorrean arduratu behar dute herritarrei segurtasuna, babesa eta

# 1. Sarrera


## 1.3 Ertzaintzaren antolamendua

laguntza emateaz. Ondorioz, ertzain-etxeak helburu horietara zuzendutako polizia-jarduera guztiak kudeatu behar ditu; betiere beste lurralde organo edo organo zentral batzuen babesaz eta laguntzaz.

Egitura honek herritarren babeserako, ikerketa kriminalerako eta polizia inteligentziarako jarduerak antolatzeko eredu eratu du. Horri esker jarduera horiek integra daitezke herritarrengandik hurbilen dagoen esparrutik erakundeko organorik zentralenetara eta espezializatuenetara.

Asmo horrekin, zerbitzu edo unitate bakoitzaren atxikipen organikoari dagozkion kudeaketa-ardurei kalterik egin gabe, ahalbidetzen da helburuak, jarraibideak eta prozedurak erakundeko mailtan (tokikoak, lurraldekoak eta zentralak) finkatzea. Horiek errazten dute, esate baterako, ikerketa kriminalari edo polizia-inteligentziari buruzko jarduerak eta aginte- eta kontrol-zentroek beren maila operatiboetan dituzten eginkizunak era bertikalean integratzea, baita berorien norabide bikoitzeko fluxua ere.

### 1.3.2 Ertzaintzaren organigrama





## 2. Prozesuaren deskribapena. Metodologia

### 2.1 Metodologia

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana diseinatzerakoan, argi izan da aukera hori baliatu nahi zela Ertzaintza osatzen duten komunitateko kideekin kontrastatzeko, haien iritziak jasotzeko eta, neurri txikiagoan bada ere, haien inplikazioa pizteko. Plangintza berri baten diseinua beti da aukera ona aldatu edo hobetu nahi den egoera hori eragindako eragileekin batera egiteko. Ertzaintzaren tamaina kontuan hartuta, ertzainen ordezkaritza kualifikatu bat aukeratu da kontraste-lan hori egiteko (aurrerago ikusiko da nola egin den) eta hauek izan dira bilatzen genituen helburuak:

- o Informazioa jasotzea: elkarrizketatuen iritziak, ikuspegiak, kezak, proposamenak eta abar jasotzea.
- o Hausnarketa eragitea, hau da, elkarrizketak baliatzea Euskara Planari eta euskarari buruzko gogoetak partekatze eta aurrera begirako erronka nagusiak identifikatzeko.
- o Aurrera begirako erronkei heltzeko Ertzaintzaren komunitatearen aldartea ezagutzea eta jarrera aktiboa piztea.

Prozesua metodologikoki bideratzeko IAP (euskaraz Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen den metodologiaren oinarriak hartu dira kontuan.

Esan dezakegu hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabalduz eta prozesu horien bidez harremanak aldatzeaz gainera, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraiki direla.

IAP egitasmoetan, bere hiru osagaiek parte hartzen dute neurri desberdinetan:

- o Ikerketak gogoeta-prozesua dakar berarekin; gogoeta-prozesu sistematikoa, kontrolatua eta kritikoa, eta ikerketaren edo egitasmoaren xedea praktikoa da; hau da, ekintzarekin edo esku-hartzearekin zuzenki lotuta dago.
- o Ekintza egitasmoaren xedea izateaz gainera, ikasketa-iturri da, ikerketa bera esku hartzeko modua den bezalaxe.
- o Parte hartzeak esan nahi du ikerketan inplikaturakoak ez direla ikerketaren arduradunak bakarrik izango; egitasmoaren xede diren komunitateak ez baitira ikerketaren objektu soilak: subjektu aktiboak dira, euren errealitatea ezagutzen eta aldatzen laguntzen dutenak.

Hauek izan dira datu-bilketa eta landa-lana egiteko bide eta urrats nagusiak:

1. Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bidez eta Ertzaintzako buruen bidez informazio orokorra jaso da
2. Bisitatutako unitateetan informazio zehatza jaso da
3. Jasotako informazio guztiarekin lehenbiziko zirriborro-txostena sortu da
4. Txosten hori Ertzaintzako hainbat buru eta arduraduni igorri zaie, haien ekarpenak jasotzeko
5. Bi kontraste-saio antolatu dira, erabaki estrategikoak hartzeko eta behin betiko zuzenketak adosteko

## 2. Prozesuaren deskribapena. Metodologia

### 2.1 Metodologia

- Behin betiko txostena adostu da: Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatze II. Plana

Jarraian, landa-lanaren zehaztasunak azaltzen dira:

#### 2.1.1 Landa-lanaren antolamendua

Arestian aipatu bezala, bi multzotan banatu da landa-lana: alde batetik, Ertzaintzako arduradunak elkarrizketatu ditugu; eta, bestetik, unitate polizial zehatz batzuetako langileak. Guztira 120 elkarrizketa egin ditugu, horietatik 12 Ertzaintzaren arduradunei egindako elkarrizketa orokorrak izan dira.

#### ELKARRIZKETA OROKORRAK

1. Ertzaintzaren zuzendaria
2. Ertzaintzaren burua
3. Herritarren Babeserako Alorreko burua
4. Ikerketa Kriminaleko Alorreko burua
5. Eraikinen Segurtasuneko Unitateko burua
6. Inteligentziako Bulego Nagusiko burua
7. Laguntza Taktikoko burua
8. Giza Baliabideen zuzendaria
9. Idazkaritza Nagusia
10. Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko zuzendaria
11. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Ikasketa eta Plangintza Dibisioko burua
12. Hizkuntza Normalkuntzako atalburua

#### UNITATEAK

- |                                  |  |
|----------------------------------|--|
| 1. Bizkaiko AKZ                  | 12. Errenteriako Ertzain-etxea                 |
| 2. Gipuzkoako AKZ                | 13. Laudioko Ertzain-etxea                     |
| 3. Bilboko Ertzain-etxea         | 14. Guardiako Ertzain-etxea                    |
| 4. Donostiako Ertzain-etxea      | 15. Joko eta Ikuskizun Unitatea                |
| 5. Gasteizko Ertzain-etxea       | 16. Idazkaritza Nagusia                        |
| 6. Getxoko Ertzain-etxea         | 17. Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Zerbitzua  |
| 7. Durangoko Ertzain-etxea       | 18. Bizkaiko Trafikoko Lurralde Unitatea       |
| 8. Ondarroako Ertzain-etxea      | 19. Brigada Mugikorraren Unitatea              |
| 9. Urola Kosta Ertzain-etxea     | 20. Bizkaiko Lurralde Burutza                  |
| 10. Deba-Urolako Ertzain-etxea   | 21. Arabako Lurralde Burutza                   |
| 11. Inteligentzia Bulego Nagusia | 22. Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusia |



## 2. Prozesuaren deskribapena. Metodologia

### 2.1 Metodologia

Diagnosi-prozesua honela gauzatu da:

URRATSAK	
<b>Aurrelanak</b>	Prozesua antolatu: elkarrizketak egiteko unitateak aukeratu, landa-lana egiteko Ertzaintzako solaskidea izendatu Galdetegiak prestatu Prozesua komunikatu: Ertzaintzako unitateburuei diagnosia egiteko metodoaren nondik norakoak azaldu aurrez aurre
<b>Landa-lana</b>	Unitateko arduradunak elkarrizketatuak aukeratu Elkarrizketak egin
<b>Emaitzen azterketa (diagnostikoa)</b>	Elkarrizketako emaitzak aztertu Lan-ildoak aukeratu Arduradunekin kontraste-saioak egin
<b>II. Euskara Plana</b>	Txostena landu

#### 2.1.2 Euskara Planaren garapena

Testuinguruaren atalean aipatu bezala, trantsizio-bide bat egin nahi da egungo lan egiteko moldeetatik molde berrietara, bi erronka nagusi jomugan: 1) Euskara Plana modu integratuan lantzea eta 2) euskararen kudeaketa Ertzaintzaren ohiko kudeaketa-sisteman integratzea.

Horretarako, honela aurreikusi da lan egitea:

URRATSAK	
<b>Aurrelanak</b>	2019. urterako Kudeaketa Plana adostea Ertzaintzako eragileekin batera.
<b>Diskurtsoa</b>	Ertzaintzak euskararekin duen harremanaren inguruko diskurtsoa eraikitzea eta adostea. Horretarako, kanpo-adituen bidez trebakuntza soziolinguistikoa eskainiko da.
<b>Komunikazioa</b>	Komunikazioari berebiziko garrantzia emango zaio eta aldiro-aldiro Euskara Planarekin lotutako berriak eta lortzen diren aurrerapenen inguruko berriak bidaliko zaizkie ertzain guztiei.
<b>Esperientzia pilotuak</b>	Erabilera Planeko ekintza nagusiak gauzatuko dira lehentasunezko unitateetan, eta, unitate horietan, baldintzarik egokienak ematen diren lan-eremuetan. Interbentzioak eragindako langileekin elkarlanean gauzatuko dira.
<b>Hedapena eta inplementazioa</b>	Esperientzia pilotuen emaitzen balorazioa eta hobetzeko alderdiak egin eta landu ondoren, gainerako lan-eremu eta unitateetan inplementatuko dira.
<b>Segimendua eta ebaluazioa</b>	Urtez urteko kudeaketa-planak sortuko dira, plan honetan ezarritako irizpideetan oinarrituriko ekintza jakinak zehaztuta. Kudeaketa-plan horietan behar bezala jasoko da aurreikusitako ekintzen betetze-maila, bai eta ebaluazioa egiteko adierazleak ere.

## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.1 Informazio kuantitatiboa

Atal honetan, Ertzaintzaren egungo egoeraren gaineko informazio kuantitatiboa jaso da, bederatzi azpiataletan bereizita. Datu hauek Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Planaren (2013-2017) ebaluazio-txostenekoak dira.

Hauek dira azpiatalak:

- o Ertzaintzako lanpostuen eta egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak
- o Ertzain-etxeetako hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila udalerrietako indizearekin alderatuta
- o Derrigortasun-datak
- o Euskara-ikasleen bilakaera
- o Zerbitzu-hizkuntza (hizkuntza-paisaia, argitalpenak eta webgunea)
- o Lan-hizkuntza indartzeko baliabideak
- o Euskara-kexak
- o Planaren egitura
- o Ekintza osagarriak

Jarraian, azpiatal bakoitzaren informazio orokorra dago. Informazio gehiago behar izanez gero, ikusi 2018ko maiatzean aurkeztutako Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Planaren ebaluazio-txostena.

#### 3.1.1 Ertzaintzako lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta ertzainek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak

Europako Hizkuntzetarako Erreferentzia Esparru Bateratura ekarritako Ertzaintzaren hizkuntza-eskakizun bien edukiak 76/2012 Dekretuan argitaratu ziren. Ondoren, 2013ko ekainaren 26ko Segurtasuneko sailburuaren Aginduaren bitartez Ertzaintzaren lanpostu zerrenda aldatu zen eta, besteak beste, Ertzaintzaren 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak esleitu ziren (bigarren hizkuntza-eskakizuna 288 dotaziotan ezarri zen). Horren haritik, esan behar da Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna Europar Marko Bateratuaren B2 mailarekin bateratzen dela eta 2. hizkuntza-eskakizuna, C1 mailarekin.

Lauki honetan, Ertzaintzaren lanpostu zerrendan dauden 8.000 dotazioak haiek esleituta duten hizkuntza-eskakizunaren arabera banatuta datoz (lanpostu bakoitzak dotazio bat ala gehiago izan dezake):

### 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

#### 3.1 Informazio kuantitatiboa

	Dotazioen hizkuntza-eskakizuna	
	Kopurua	Ehunekoa
1. HE	7.712	% 96,40
2. HE	288	% 3,60
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.000</b>	<b>% 100</b>

Une honetan Ertzaintzan dauden 8.000 dotazioak ez daude beteta; hori dela eta, ondoren, lanean ari diren ertzainen euskara mailaren gaineko datuak azalduko ditugu egiaztatutako hizkuntza-eskakizunen arabera.

Aurreko planaren bukaeran (2017. urtearen amaieran), 486 ertzainek Ertzaintzaren bigarren hizkuntza-eskakizuna (C1) egiaztatuta zuten eta 2.972k lehenengoa (B2). Guztira, 3.458 ertzainek dute, beraz, Ertzaintzaren hizkuntza-eskakizunen bat; hortaz, 7.407 ertzainez osatutako plantilla errealean (lanean ari diren ertzainetatik) % 46,68k du Ertzaintzaren bi hizkuntza-eskakizunetako bat gaindituta.

Lauki honetan 2014 eta 2018ko datuak alderatu ditugu, azken urteetako bilakaera islatzeko:

	2014			2018		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
1. HE	344	2.506	2.850	353	2.619	2.972
2. HE	29	127	156	114	372	486

#### 3.1.2 Ertzain-etxeetako hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila udalerrietako indizearekin alderatuta

Ertzaintzan, Administrazio Orokorrean bezala, hizkuntza-indizea honako formula hau aplikatuz kalkulatzen da:

$$\text{Euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$$

Beraz, polizia-unitate bakoitzaren esparru geografikoaren arabera, unitate bakoitzari dagokion hizkuntza-indizea kalkulatzen da.

Hurrengo taulan ertzain-etxe guztietan dagoen hizkuntza-eskakizunaren egiaztatze-maila azaltzen da, ertzain-etxe hori kokatuta dagoen udalerriko indizearekin alderatuta, eta egoera onenetik okerrenera antolatuta.

## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.1 Informazio kuantitatiboa

ERTZAIN-ETXEAK	HE EGIAZTATE-MAILA		HIZKUNTZA-INDIZEA		
	1. HE	2. HE	HI	EHI*	Aldea
Laudio	41	1	% 52	% 48	% -4
Urola Kosta	105	16	% 80	% 75	% -5
Deba-Urola	120	15	% 74	% 68	% -6
Donostia	168	20	% 56	% 49	% -7
Errenteria	72	8	% 64	% 56	% -8
Guardia	14	2	% 30	% 20	% -10
Irun	73	13	% 61	% 52	% -10
Bilbo	186	18	% 39	% 28	% -11
Muskiz	43	3	% 39	% 26	% -13
Basauri	38	8	% 42	% 29	% -13
Eibar	72	5	% 71	% 58	% -13
Sestao	52	5	% 37	% 23	% -14
Hernani	74	15	% 77	% 62	% -15
Durango	92	11	% 73	% 58	% -15
Gasteiz	121	4	% 41	% 25	% -16
Balmaseda	14	1	% 37	% 18	% -19
Galdakao	29	1	% 58	% 38	% -20
Gernika-Lumo	79	13	% 82	% 59	% -23
Erandio	45	6	% 59	% 34	% -25
Oria	94	10	% 86	% 60	% -26
Getxo	45	2	% 56	% 28	% -28
Ondarroa	32	4	% 88	% 56	% -32

(\*Oharra, EHI: Ertzain-etxeetako Hizkuntza Indizea)

#### 3.1.3 Derrigortasun-datak

Bigarren normalizazio-epealdiaren lehen bost urteak igaro eta gero, 2013ko ekainaren 26ko Segurtasun sailburuaren Aginduaren bitartez, Ertzaintzaren lanpostu zerrenda aldatu zen eta, besteak beste, 509 derrigortasun-data berri jarri ziren. Ondoren, bigarren epealdia bukatu baino lehen, gutxienez beste horrenbeste derrigortasun-data jartzea aurreikusita zegoen, 76/2012 Dekretuan ageri den derrigortasun-indizea (% 43,87) betetzeko. Horrela, 2017an, bost urteko tartean, 511 derrigortasun-data gehiago esleitu ziren.


## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.1 Informazio kuantitatiboa

	DERRIGORTASUN-DATAK	
	Kopurua	%
1. HEdu (B2) dotazioetan	3.498	% 47,22
2. HEdu (C1) dotazioetan	15	% 0,20
DD guztira	3.513	% 43,90
DDrik gabeko dotazioak	4.487	% 56,10
Dotazioak, guztira	8.000	% 100

#### 3.1.4 Euskara-ikasleen bilakaera

Hizkuntza-eskakizuna gainditu duten ertzainen erdiak Akademiak emandako edo kudeatutako ikastaroetan parte hartu du. Bestalde, azken bost urteetan 1.903 ertzainek euskara ikasi eta hobetu dute euskaltegietan lanorduz kanpo, lanorduetan eta ELEBI ikastaroetan. Horrez gain, lanorduz kanpo euskara ikasi duten ertzainek Segurtasun Saileko diru-laguntza jaso dute.



#### 3.1.5 Zerbitzu-hizkuntza (hizkuntza-paisaia, argitalpenak eta webgunea)

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren argitalpenak arautzen dituen apirilaren 7ko 67/1998 Dekretuaren 15. artikulua ezartzen duenari jarraituz, Ertzaintza eta Segurtasun Saileko argitalpenek hizkuntza ofizial biak erabiliko dituzte eta euskararen presentzia gutxienez % 50 izango da.

2008. urtean, EAEko ertzain-etxeetako eta Herrizaingo Sailaren menpeko beste azpiegitura batzuetako errotulazio aztertu zen, orduko egoeraren nondik norakoak zehatz-mehatz aztertu eta errotulazioa bateratzeko irizpideak finkatzearen, betiere Ertzaintzak onartutako terminologiari jarraiki. 2009. urtean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren errotulazioa aztertu zen eta azterketa horien ondorioz 2010. urtean, errotulazio-eskuliburua argitaratu zuen Ertzaintzak, errotulazioari buruzko jarraibideak Segurtasun Sailburuordetzaren esparruan finkatzen dituena. Jarraibide horiek xehe adierazten dute arlo honetan nola jokatu behar den. Bestek beste, atal hauek jasotzen ditu: Ertzaintzaren marka, arau orokorrak, hizkuntza ofizialen erabilera, errotulazio-arauak eta abar.

## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.1 Informazio kuantitatiboa

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia-eredua arautzen dituen ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuaren 6. artikulua ezartzen duenari jarraituz, Ertzaintza eta Segurtasun Saileko Internet, intranet eta sare sozialetan hizkuntza ofizial biak erabili ahal izango dira. Berez, web-orriak euskaraz erabiltzeko moduan agertuko dira. Ele biak parean agertzen direnean, euskarak lehentasuna izango du.

#### 3.1.6 Lan-hizkuntza indartzeko baliabideak

Ertzaintzak eskaintzen dituen euskara-ikastaroei laguntzeko, 2016. urtean Dudatan kontsultaz-zerbitzua sortu zen. Bi helbururi erantzuteko jarri zen martxan: batetik, euskara ikasi nahi duten ertzainek euskara-prozesuaren gainean izaten dituzten galderi erantzutea; eta, bestetik, euskarazko terminologia-zalantzak argitzea. GURENETeko intranetean dago eskuragarri. Bertan, "Euskara tresnak" izeneko tokia ere badago, non eskuliburuak, hiztegiak eta polizia-terminologia kontsultatzeaz gain, euskararen erabilerarako lagungarriak diren tresnak aurkitu ahal dira.


Beste alde batetik, Ertzaintzak interpretazio- eta itzulpen-zerbitzua du. Bertan, besteak beste, euskara-gaztelania-euskara itzulpenak egiten dira. Azken urteotan, gehienbat, IVAPEko IZOBERRIren bitartez kudeatu dira. Horrez gain, 2018. urtean, Ertzaintzaren aplikazio informatiko eta dokumentazioa estandarizatzeko programa indarrean jarri da.

#### 3.1.7 Euskara-kexak

ELEBIDE, EKINBIDE edo Arartekotik jasotako herritarren eta erakundeen kexa eta ekimenek agerian uzten dute euskararen Erabilera Planari eta hizkuntza ofizialen eskubideei buruzko informazioaren premia dagoela.

EKINBIDEk kudeatutako euskara-kexak hiru iturritik jaso ditu: Elebide, Behatokia eta partikularrak. 2012. urteaz geroztik gora egin dute kexa-kopuruek; 2016. Urtean, 27 kexa jaso ziren guztira, baina ia beharakada esanguratsua izan zen; guztira, 17 kexa jaso ziren, aurreko urtean baino 10 gutxiago.

2016-2017ko urteetatik eskuratu ahal izan ditugun euskararen inguruko kexak aztertuta, ondorioztatzen dugu bi gairen ingurukoak izaten direla gehien-gehienetan: alde batetik, gehien bat ertzain-etxeetan jendearen harrera euskaraz ez bermatzearen ingurukoak eta beste aldetik, herritarrentzako idatzizko oharrekin edota megafonia mezuekin lotutakoak.



(\*Oharra, EHI: Ertzain-etxeetako Hizkuntza Indizea)

## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.1 Informazio kuantitatiboa

#### 3.1.8 Planaren egitura

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatzeko ezinbestekoak izan dira honako antolaketa-egitura hauek:

- o Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atala
- o Ertzaintzan Euskararen Erabilera Planaren Batzorde Nagusia
- o Ertzaintzan Euskararen Erabilera Planaren Batzorde Teknikoak
- o Ertzaintzan Euskararen Erabilera Planaren Negoziazio Batzordea

Urtean bitan elkartu dira batzordeak, baina, horiez gain, berariazko batzorde teknikoak (azpibatzerdeak) sortu ditugu, egunerokoan kudeatu beharreko alorrei eraginkortasunez erantzuteko. Batzorde tekniko horiek maiztasun handiagoarekin batu izan dira. Hona hemen sortu diren batzorde teknikoak:

- o ELEBI Ertzaintza programa koordinatzeko.
- o Lanorduz kanpo eta lanordu barruan HABEren euskaltegien sarean euskara ikasten duten ertzainen segimendurako.
- o Ertzaintzaren aplikazio informatikoak, dokumentazioa eta terminologia normalizatzeko.
- o Ertzaintzaren Hizkuntza Paisaiarako.
- o Lanordu barruan Segurtasun Sailak antolatutako euskara-ikastaroak koordinatzeko.
- o Hizkuntza Politikaren gaineko gaietan Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin koordinatzeko.

#### 3.1.9 Ekintza osagarriak

Euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko, aipatutakoez gain, beste hainbat ekintza gauzatu izan dira urtean zehar:

- o Euskararen Eguna sistematikoki ospatzen da Ertzaintzaren egoitza nagusietan, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plana indarrean jarri zenetik
- o 2016ko urrian Segurtasun Saileko lan-itunpekoen eta Ertzaintzako langileen arduradunekin

2 orduko motibazio-saioa antolatu zen lidergoan euskararen irizpidea txertatzeko.

- o 2016ko udazkenean eta neguan, Twitterren euskararen erabilera sustatzeko tailerrak antolatu ziren Ertzaintzaren AKZ Nagusiko operadoreentzat.

## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.1 Informazio kuantitatiboa

- o Azken bi urteetan Segurtasun Saileko medikuek eta erizainek kontsultetan ertzainak euskaraz artatzeko Baietz Kontsulta Euskaraz Ertzaintzan programa martxan jarri da; proiektuak hauek ditu helburu: ahozkoaren jarotasuna lantzea, euskaldunen identifikazioa, telefonozko harrera euskaraz, pazienteei banatzen zaizkien osasun-aholkuak elebidun bihurtzea....
- o Hilero, mezu elektronikoz bidez, euskararen inguruko aholkuak posta elektronikoz bidaltzen zaizkie ertzainei, euskara-maila hobetzeko eta euskara bera sustatzeko.





## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.2 Informazio kualitatiboa

Ertzaintzaren Erabilera Planaren diagnostikoa egiteko 2018ko irailetik urrira bitartean, unitate eta kategoria zein profil desberdinetako 120 ertzain elkarrizketatu genituen.

Laburbilduz, honako hauek ondoriozta daitezke:

#### 3.2.1 Orain arteko ibilbidea

Parte hartu duten ertzain gehienek, kargua edozein dela ere, balorazio kritikoa egin dute orain arteko ibilbideaz; bi arrazoi azpimarra daitezke: euskara ez da erakundearen erdigunean egon eta ez da lan-sistematiko eta eraginkorrik gauzatu.

Horrekin batera, hainbatek aipatu dute zailtasunak izan direla euskara behar bezala ikasteko; bi arrazoi nagusirengatik: batetik, iragan hurbileko testuinguru politikoak ez du erraztu euskara ikastea (euskaltegietara joateko zailtasunak, euskara joera politiko zehatzekin identifikatzea...); bestetik, Ertzaintzaren ezaugarrietako bat da ertzainen ordezkazintasuna, eta, horren ondorioz, administrazioko gainerako langileekin alderatuta, zailtasun handiagoak daude hainbat lanpostutan langileek lan-ordutan euskara ikasi ahal izateko.

Bestalde, kontuan hartu behar da Ertzaintzako langileen batez besteko adina 48,04 urtekoa dela eta horrek asko baldintzatzen duela aurrera begirako urratsak; dena den, azpimarratu beharra dago, elkarrizketatutako ertzain gehienek jarrera irekia eta egoera aldatzeko gogoia eta prestutasuna erakutsi dutela. Testuinguru horretan, gehienek aipatu dute belaunaldi-aldaketa aldeko faktorea izango dela Ertzaintza euskalduntzeko, betiere gauzak ondo egiten badira. Datu bat: ertzain gehienak 60 urte dituztela erretiratzen dira eta gaur egun 50 urte baino gehiago dituzten ertzainak 3.995 dira.

#### 3.2.2 Euskararen kudeaketa-sistema

Eusko Jaurlaritzaren 2018-2022 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plan Nagusiaren erronka estrategikoetako bat da euskararen kudeaketa erakundeen ohiko kudeaketa-sisteman txertatzea. Ertzaintzak bere erakundearen euskara normalizatzeko dituen erronkak eta erronka horiei aurre egiteko duen egitura kontuan hartuta, ezinbesteko ikusten da Eusko Jaurlaritzak gomendatzen dituen kudeaketa-parametroetara hurbiltzea; hortaz galdetuta, elkarrizketatutako Ertzaintzako arduradun gehien-gehienek beharrezkoa eta egingarria ikusten dute euskararen kudeaketa erakundeko kudeaketa-sisteman txertatzea, bai eta dagokien hizkuntza-ardura hartzea ere.

Ildo horretatik, gehienek aipatu dute Ertzaintzako arduradunen egitekoa ere badela hizkuntza-lider gisa eta eredugarritasunez jokatzea.

Ertzainen batez besteko adina eta plangintzaldi honetan zehar emango den belaunaldi-aldaketa dela-eta, aldaketa hori kudeatzerakoan hizkuntza-faktorea bereziki zaindu beharra azpimarratu dute.

## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.2 Informazio kualitatiboa

#### 3.2.3 Komunikazioa

Elkarrizketatutako ertzain gehienek aitortu dute Erabilera Planari buruz duten informazioa txikia dela, jasotako informazioa ez delako egokia izan, eta informazioa zabaltzeko bideak ez direlako egokiak izan.

Informazioa jasotzeko kanalei dagokienez, bi maila bereizten dira: batetik, ordenagailuaren aurrean lan egiten dutenek aipatu dute GURENET (intraneta) bidez jaso dutela informazioa, gainerako informazio orokorra jasotzen duten gisan; bestetik, txandatan eta herritarren segurtasunean lan egiten dutenek (ertzain gehienak) aipatu dute GURENET ez dela nahikoa, hain zuzen ere, eurek ez dutelako ordenagailua modu sistematikoan erabiltzen. Bigarren horien kasuan, gehienek aipatu dute oso informazio gutxi jaso izan dutela.

#### 3.2.4 Euskara-gaitasuna eta -erabilera

Salbuespenak salbuespen, gaztelaniaz funtzionatzen da ia erabat Ertzaintzan. Ertzain gehienak hobeto moldatzen dira gaztelaniaz, eta euskara hitz egiteko gai diren gehienek ezinbestekoa denean baino ez dute erabiltzen euskara.

Ahalegin handia egin da eta erraztasunak eman dira ertzainek euskara ikasteko, baina, hala ere, euskara-gaitasunak ez du erabilera bermatu; gainera, ez erabiltzeagatik, ertzain askok aitortu dute euskaraz jarduteko gaitasuna galdu dutela eta orain dela urte batzuk baino ezintasun handiagoak dituztela euskaraz jarduteko. Dena den, azpimarratu behar da badagoela hizkuntza-eskakizunik ez duen ertzain multzo jakin bat euskaldun zaharra dena eta euskara normaltasunez hitz egiten duena (datu hori ez dago sistematizatuta, baina hainbat unitatetan hori adierazi dute).

Elkarrizketatutako ertzain gehienek aitortu dute beharrezkoa dela Ertzaintzan euskara ondo jakitea, hizkuntza ofiziala delako eta, langile publikoak direnez, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu egin behar dituztelako.

Euskararen erabilera bermatzeko egiturazko arazoa dago: ertzain gehienek txandatan lan egiten dute. Txanda horiek egituratzean kontuan hartzen diren irizpideen artean ez daude hizkuntza-irizpideak; beraz, ezin da bermatu talde guztietan euskara dakien ertzainik egotea, eta, ondorioz, ezin da bermatu zerbitzua euskaraz eman ahal izatea, ezta ingurune euskaldunetan ere.

Hizkuntza-prestakuntzak ez du erabilera bermatu. Segurtasun Sailak ahalegin handia egin du euskara-gaitasun egokia ez zuten ertzainek euskara ikasi eta dagokien hizkuntza-eskakizuna eskuratzeko, baina, ondoren, ez da irizpide argirik egon ertzain horiek euskara erabil zezaten.

#### 3.2.5 Erakundearen irudia

Ertzaintzak ahalegin handia egin du bere irudi korporatiboa euskaraz eta gaztelaniaz izateko eta hori da, hizkuntzari dagokionez, alderik indartsuena. Izan ere, salbuespenak salbuespen, Ertzaintzako errotulu ofizial ia guztiak ele bietan daude, bai eta bere argitalpen, webgune eta sare sozialetako eduki gehien-gehienak ere.



## 3. Gaur Egungo Egoera. Diagnostikoa

### 3.2 Informazio kualitatiboa

Hainbatek aipatu dute Ertzaintza herritarrenganako hurbileko polizia izateko eta Ertzaintzaren lana kalitate-parametroekin kudeatzeko ezinbestekoa dela hizkuntza-irizpideak aintzat hartzea, nekez berma baitaitezke bi irizpide horiek (hurbiltasuna eta kalitatea) herritarrak nahi duen hizkuntzan hitz egitea bermatzerik ez badago.

Elkarrizketatutako ertzain askok azpimarratu dute herritarrak nagusiki gaztelaniaz zuzentzen zaizkiela. Horren arrazoietako bat izan daiteke ertzainen hizkuntza-gaitasuna eta -erabilera txikia izanik, herritar askok gaztelaniarekin identifikatzen dituztela ertzainak, eta, horren ondorioz, herritarrek Ertzaintzarekiko duten irudia aldatzeko beharra nabarmendu dute hainbatek.

## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.1 Sarrera

Sarreran aipatu dugu, batetik, euskararen erabilera normalizatzeko berezko bideari jarraitu diola Ertzaintzak, eta, bestetik, plangintzaldi hau baliatuko dela Eusko Jaurlaritzaren mendeko gainerako erakundeen lan egiteko modura hurbiltzeko; hau da, trantsizioa egingo da lan egiteko molde zaharretatik berrietara, hots, Erreferentzia Marko Estandarraren (EME) ereduari atxikiko zaio Planak aurrera egin ahala. Gauzak horrela, komeni da gogoratzea zein den Eusko Jaurlaritzak VI. Plangintzaldirako proposatu duen helburu nagusia: sail guztiak herritarrekiko harremanetan hizkuntza-eskubideak % 100 bermatzeaz gain, lan-hizkuntzan euskararen erabilerari buruzko adierazleetan, gutxienez, 15 puntutan gora egitea Plangintzaldiaren amaierarako; hau da, 2022rako.

Ertzaintzaren III. Plangintzaldiak 2027. urtera arteko iraunaldia izanik, helburu hori bere egin du, betiere honela formulaturik:

#### 4.1.1 Helburu nagusia

##### **Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko III. Plangintzaldiaren helburu nagusia**

Ertzaintzak herritarrekin dituen harremanetan hizkuntza-eskubideak % 100 bermatzea eta lehentasunezko unitate eta lan-eremuetan euskara ohiko lan-hizkuntza bilakatzea, betiere plangintzaldiaren amaierarako.

Helburu nagusi hori lortzeko, oinarri eta estrategia berriak hartuko dira kontuan, besteak beste, lidergoa, elkarlana, komunikazioa, koordinazioa eta partaidetza. Gainera, eraginkorra eta neurgarria izango da, eta, horretarako, Ertzaintza osatzen duten eragile guztien inplikazioa eta erakundearen hizkuntza-aktibazioa bultzatzeko estrategia komunikatiboek berebiziko garrantzia hartuko dute.

Hori egiteko, lau ardatz nagusitan oinarrituko da Plana:

#### 1) Ertzainen euskara-gaitasuna

Plan hau mugarri izango da herritarrekiko harremanetan eta horretarako ezinbestekoa da ertzainek euskararen oinarritzko ezagutza bermatzea. Ildo horretan, berebiziko garrantzia izango du Planak iraungo duen aldian Ertzaintzan izango den belaunaldi-aldaketa; izan ere, datozen urteetan ertzainen ehuneko handi batek erretiroa hartuko du eta ertzain berriak hasiko dira lanean.

#### 2) Euskararen erabilera herritarrekin eta lankideekin

Ardatz honek euskara erabiltzeko uneak eta guneak ditu jomugan, euskararen erabilera-aukerak handitzeko eta indartzeko ertzainen ohiko lan-jardueretan. Horretarako, ahalegin berezia egingo da euskara-gaitasuna dutenek lanean egunerokoan erabil dezaten.

#### 3) Euskararen kudeaketa

Ertzaintzak eskarmentu handia du kalitate-irizpideekin lan egiten, eta, gainera, bere helburuen artean herritarrekiko harremanak hurbiltasun- eta kalitate-parametroetan eraikitzea du helburu. Ildo horretatik, eta Eusko Jaurlaritzak kudeaketa aurreratuko eredu bat garatzeko egiten ari den ahaleginarekin bat eginez, eta egiten dituen gomendioak aintzat hartuz, euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa-sisteman txertatuko da.



## 4. 2018-2027 Plangintzaldia


### 4.1 Sarrera

#### 4) Erabilera-planaren gaineko informazio eta komunikazioa

Iragan planaren balorazioan argi ikusten da Euskara Planaren gaineko informazioa eta komunikazioa hobetu egin behar direla. II. plan honetan, berebiziko garrantzia emango zaie bi atal horiei, hala nola, hizkuntzen gaineko diskurtsoaren berariazko lanketa eginez eta informazioaren eta komunikazioaren kudeaketa erakundearen ohiko kudeaketa-sistemetan txertatuz. Trebakuntza soziolinguistikoari ere garrantzia emango zaio, eta informazioa eta komunikazioa zehar-lerro gisa landuko dira.

Lau ardatz horiei erantzuteko 12 erronka adostu dira; erronka bakoitzak, jakina, ekintza multzoa dakar berarekin. Hurrengo bi grafikoetan irudikatu dugu lan egiteko moduaren eskema. Lehenbizikoan, eskema orokorra irudikatu dugu; bigarrenean, zehaztasun handiagoarekin, ardatzen eta erronken definizioak azaltzen dira.


Planaren osagaiak honako hauek dira, beraz: helburu nagusi bat, 4 ardatz, 12 erronka eta 62 ekintza.



## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.1 Sarrera

#### 4.1.2 Ardatzak eta erronkak






## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.1 Sarrera

#### 4.1.3 Epealdia eta irizpide nagusiak

Jakin badakigu plangintzaldi honen iraunaldia 2018. urtetik 2027. urtera artekoa dela eta trantsizio gisa planteatu dugula orain arte lan egiteko moldeetatik EMERen markora igarotzeko. Horretarako, Plangintzaldiaren ekuatorea baliatuko dugu tarteko ebaluazioa egiteko eta ebaluazio hori BIKAINen parametroen arabera egingo dugu; hori izango da, beraz, Administrazioako gainerako ezaugarrien arabera lan egiteko jauzia emateko unea.

Bost une nagusi izango ditu Plangintzaldiak:



Testuinguruaren atalean jaso dugun harira, Ertzaintzaren III. Plangintzaldiak hamar urteko iraupena izango du eta bost urteko bi planez dago osatuta: 2018-2022 aldiari dagokiona Ertzaintzaren II. Plana izango da eta 2023-2027 aldiari dagokiona III.a; hau da:

- o Ertzaintzaren II. Erabilera Plana: 2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra.
- o Ertzaintzaren III. Erabilera Plana: 2023ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra.

Ertzaintzan zerbitzu aktiboan dauden ertzainei eragingo diete planek: ertzain funtzionarioei, praktiketako ertzainei eta prestakuntzan dauden ertzaingaei, hain zuzen ere.

Urtero ekintzez osaturiko berariazko kudeaketa-planak adostu eta onartuko dira eta horietan jasoko dira urtez urte erdietsi beharreko erronkak eta horiek gauzatzeko ekintza-plangintza zehatza.

## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.2 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana

#### 4.2.1 Helburu nagusiak

Hauek dira Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren helburu nagusiak:

- o Euskara zerbitzu-hizkuntza izateko urrats erabakigarriak ematea, batez ere ingurune euskaldunetan eta jendaurreko eginkizunetan.
- o Ertzainen artean euskara lan-hizkuntza izateko ohitura zabaltzea.
- o Erabilera Planaren kudeaketa EMERen parametroen arabera kudeatzera igarotzea.
- o Euskararen kudeaketa Ertzaintzaren kudeaketa-sisteman integratzea.
- o Ertzaintzako arduradunen hizkuntza-lidergoa indartzea.
- o Planari buruzko informazioa erakunde osora modu sistematikoan zabaltzea eta euskararen aldeko diskurtso propioa eraikitzea.

#### 4.2.2 Ekintza nagusiak

Hauek dira Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planean gauzatuko diren ekintza nagusiak:

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren egiteko nagusiak	
<b>Hizkuntza-eskakizunak berrikusi eta berriak ezarri</b>	- Bigarren hizkuntza-eskakizunaren gaineko gogoeta egin eta lanpostu gehiagori esleitu.
<b>Derrigortasun-data berriak ezarri</b>	<p>-Nahitaezkoderrigortasun-indizeberriarezarri.Ertzaintzaren II. Erabilera Planerako derrigor bete beharreko indizea kalkulatzeko, indarrean dagoen Erroldan edo Biz-tanleria eta Etxebizitza Estatistikan datu soziolinguistikoei buruz jasotako azken datuak erabili behar dira. Hau da, 2017. urtean ofizialki emandako datuetan oinarritu behar gara (2016ko Erroldan jasotakoak). Ondorioz, bat egingo dugu lehenengoz Eusko Jaurlaritzako Plan Nagusiarekin, aplikatu behar den derrigortasun-indizeari dagokionez.</p> <p>Hala, II. Planaren hasieran Euskal Autonomia Erkidegoko indize berria % 51,43koa da, eta horixe da Ertzaintzari hurrengo bost urteetarako dagokion derrigortasun-indizea; orain artekoa (% 43,87) baino % 7,56 handiagoa. Igoera horrek badakar ondorio garrantzitsu hau: gutxienez 601 derrigortasun-data berri jarri behar direla bost urteko plan hau bukatu aurretik.</p> <p>Nolanahi ere, derrigortasunak ezartzeari dagokionez, irizpide nagusia izango da derri-gortasunak Erabilera Planaren helburuekin zuzenean lotzea eta urtero derrigortasun data berriak esleitzea.</p>





## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.2 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana

Principales acciones a desarrollar en el II Plan de Normalización de Uso del Euskera	
<b>Lehentasunak identifikatu eta adostu</b>	- Lehentasunezko unitateak eta funtzioak identifikatu eta adostu.
<b>L1 unitateetako mikroplanak adostu</b>	- Unitate bakoitzeko egoeraren diagnostiko zehatza. - Unitate bakoitzerako berariazko esku-hartzeak adostu.
<b>Esku-hartzeak unitateetan</b>	- L1ekoetan hasi eta gainerakoetara hedatu. - Trebakuntza-plana ezarri. - Harrera-plana moldatu. - Erabilera sustatzeko ekimenak (Eusle metodologia). - Euskarazko zirkuituak sortzeko lanketa. - Txandetan euskara-irizpideak txertatzeko lanketa. - Trebakuntza soziolinguistikoa eman. - Idatzizko dokumentazioaren azterketa. - ...
<b>Ikuspegi orokorreko egitekoak gauzatu</b> (Erakunde osoari begirakoak)	- Planaren komunikazioa egin. - Euskara Ertzaintzaren kudeaketa-sisteman integratzeko lanketa. - Ertzaintzako arduradunen hizkuntza-lidergoaren lanketa. - Komunikazio-plana ezarri. - Berariazko «protokoloak», J eta G izaerako languneetan arreta berezia jarritz: harrera-plana, hizkuntza-irizpideak, euskara ikasteko irizpideak...
<b>Ertzaintzako euskara-egiturak birmoldatu</b>	- Ertzaintzak euskararen kudeaketa eraginkorra izan dezan behar dituen egituren lanketa.
<b>Izaera nagusiko berariazko lanketak egin</b>	- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako irakaskuntza-funtzioetarako hautaketa-prozesuetan hizkuntza-irizpideak txertatu. - Prestakuntza-zentro guztietan (Berrozin eta lurretan, esaterako) ematen diren ikastaroen azterketa eta lanketa. - ...
<b>Ebaluazioa eta segimendua egin</b>	- BIKAINen autoebaluazioa egin eta EME sistemaren arabera kudeatzen hasi.

## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.2 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana

#### 4.2.3 Mugarri nagusiak

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren mugarri nagusiak:

##### 2018. urtea

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Planaren ebaluazioa egin da, bai eta II. Plana egiteko egoeraren diagnostikoa ere. Horietan oinarrituta, Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko II. Planaren lanketa egin da.

##### 2019. urtea

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana onartuko da. Behin onartuta, esku-hartzeei emango zaie hasiera. Bost lan-ildo nagusi izango dira Planaren bigarren urtean:

1) L1 unitateetako mikroplanak adostea

L1eko, hau da, lehentasun nagusiko unitateetako mikroplanak adostuko ditugu (ikus 5.2. eranskina, Unitateen sailkapena hizkuntza-izaeraren arabera).

2) Interbentzioak lehentasunezko unitateetan egitea

Interbentzioei L1eko unitateetan emango zaie hasiera. Interbentzio horiek “esperientzia pilotu” izaera izango dute eta baldintzarik egokienak ematen diren unitateetan hasiko dira esku-hartzeak; horien balorazioak egin ondoren –eta beharrezkoa balitz, egokitzapenak egin ondoren–, gainerako unitateetan aplikatuko da ikasitakoa.

3) Erakunde osoari eragiten dioten interbentzioak

2019. urtea gakoa izango da hainbat jarraibide berri adosteko. Orain arteko ibilbideak erakutsi du hainbat alorretan hobekuntzak egin behar direla; horien gaineko adostasun berriak eraikiko dira. Hauek izango dira azpimarragarrienak:

- Planaren komunikazioa
- Euskararen kudeaketa Ertzaintzaren kudeaketa-sisteman integratzeko lanketa
- Ertzaintzako arduradunen hizkuntza-lidergoaren lanketa
- Komunikazio-plana
- Berariazko «protokoloak» adostu jendaurreko (J) eta gizarte-izaerako (G) languneetan arreta berezia jarritz: harrera-plana eta hizkuntza-irizpideak, besteak beste.

4) Ertzaintzan euskararen kudeaketarako egituren lanketa

Euskararen kudeaketa Ertzaintzaren kudeaketa-sisteman integratzeko bidean, trantsizio gisa egitura berri bat sortzea proposatzen da: Talde Eragilea. Giza Baliabideen Zuzendaritzak eta Ertzaintzaren Zuzendaritzak Ertzaintzaren euskararen normalizazio prozesua eskutik egin dezaten.



## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.2 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana

#### 5) Izaera nagusiko berariazko lanketak

Bi izango dira egiteko nagusiak:

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako irakaskuntza-funtzioetarako hautaketa-prozesuetan hizkuntza-irizpideak txertatu
- Irakaskuntza-zereginak gauzatzen diren zentro guztietan ikastaroen azterketa eta lanketa egitea.

Urte amaieran, 2019. urteko kudeaketa-planaren ebaluazioa egingo da, indarguneak eta hobetu beharrekoak identifikatuko dira eta, horiek aintzat hartuta, diseinatuko dira urtez urteko kudeaketa-planak.

#### **2020. eta 2021. urteak**

2019. urtean abiatutako interbentzioekin jarraitu eta gainerako unitate polizialetera hedatuko dira.

#### **2022. urtea**

Ertzaintzaren lanpostuen hizkuntza-eskakizunen berrazterketa egingo da. Ondoren, Ertzaintzaren lanpostu zerrendan honako aldaketak egingo dira:

- o 601 derrigortasun data berri esleitzen bukatuko da, urtero derrigortasun datak esleitu baitira.
- o Hizkuntza-eskakizunen esleipena eguneratzea.

Ondoren, Planaren tarteko ebaluazioa egiteko unea izango da. Ebaluazio hori baliatuko dugu Erreferentzia Marko Estandarraren (EME) arabera egiteko, eta, horren ondorioz, gainerako administrazio publikoen sistema bera baliatzeko. Erakundearen tamaina kontuan hartuta, erronka eta lan handia eragingo du autoebaluazio horrek, baina badaude aurrekariak Administrazioan, eta, pareko adibide bat jartzearen, Osakidetzak V. Plangintzaldia EMEn arabera kudeatu eta ebaluatu zuen.

Tarteko ebaluazio hori barrura begira egingo dugu, baina BIKAIN ebaluazio-sistemaren baldintza guztiak betez. Oinarrizko informazio hori lagungarria izango da 2024. urtean BIKAIN ebaluazio sistemara aurkezteko.

Tarteko ebaluazioko emaitzak baliatuko ditugu ondo egindakoak indartzeko eta hobetu beharrekoak zuzentzeko, betiere ahalik eta baldintzarik egokienetan heltzeko 2024. urtera.

Kontuan hartu behar da, urte horietan, belaunaldi-aldaketa handia izango dela Ertzaintzan, langile askok erretiroa hartuko dutelako eta horien ordez beste horrenbeste langile berri hasiko direlako. Aldaketa hori indargune gisa baliatuko da.

## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.2 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana

#### 4.2.4 Antolaketa-egitura

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatzeko, hauek dira antolaketa-egiturak:

- o Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atala
- o Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren Batzorde Nagusia.
- o Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren Berariazko Batzorde Teknikoak.
- o Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren Negoziazio Batzordea.
- o Talde Eragilea.

#### **Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atala**

Atal horretatik, hizkuntza politikarekin lotuta dauden ekintza guztiak modu zentralizatu eta koordinatuan kudeatuko dira. Planaren barruan hainbat esparru desberdin landuko dira: giza baliabi-deen politika (hizkuntza eskakizunak/derrigortasun datak), itzulpenak eta terminologia, hizkuntza paisaia eta dokumentazio polizialaren normalizazioa, prestakuntza, eta abar. Beraz, koordinazioa ezinbestekoa da.

Beste alde batetik, Segurtasun Saileko langile talde guztien (langile polizial eta ez polizialen) Euskaren Era-bileren Planak modu koordinatuan garatu beharko dira. Ertzaintzaren hizkuntza normalkuntzak eragina du Segurtasun Saileko laboralen planifikazioan. Lan talde biek, giza baliabideak eta baliabide orokorrak parte-katzen dituzten neurrian (ofimatika eta informatika tresna berdinak, lan sareak, dokumentazio eta proze-durak, eta abar) hartzen diren hizkuntza planifikazio neurriak ere partekatuak izan beharko dira.

#### **Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren Batzorde Nagusia**

Planari segimendua egiteko, Segurtasun Sailaren atal nagusia izango da, Planaren arduraren atal honetan egongo da.

Osaera:

- o Presidentea: Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea
- o Presidenteordea: Giza Baliabideen zuzendaria
- o Idazkaria: Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntzako atalburua
- o Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria
- o Ertzaintzaren zuzendaria
- o Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria
- o Ertzaintzaren hizkuntza normalkuntza gaietarako koordinatzailea
- o Euskararen Erabilera Planaren Berariazko Batzorde Teknikoen ordezkaria



## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.2 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana

Batzorde Nagusia, idazkariak deiturik, urtean behin bilduko da. Hona hemen batzordearen funtzio nagusiak:

- o Planaren segimendu-txostenak, azken txostena eta derrigortasun-data eta hizkuntza-eskakizunen esleipena aztertzea eta ebaluatzea.
- o Erakundean eragina izango duten erabaki estrategikoak hartzea.
- o Planaren helburuak betetzerakoan sortu ahal diren arazoak saihesten laguntzea.

#### **Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren Berariazko Batzorde Teknikoak**

Planaren kudeaketa eta segimendua egiteko Segurtasun Sailaren atal teknikoak izango dira.

Egunerokoan kudeatu beharreko alorrei eraginkortasunez erantzuteko sortu dira. Une honetan indarrean daude berariazko batzordeak hauek dira:

- o ELEBI Ertzaintza programa koordinatzeko Berariazko Batzorde Teknikoa.
- o Lanorduz kanpo eta lanordu barruan HABEren euskaltegien sarean euskara ikasten duten ertzainen segimendurako Batzorde Teknikoa.
- o Ertzaintzaren aplikazio informatikoak, dokumentazioa eta terminologia normalizatzeko Batzorde Teknikoa.
- o Ertzaintzaren Hizkuntza Paisaiaren Batzorde Teknikoa
- o Lanordu barruan Segurtasun Sailak antolatutako euskara ikastaroak koordinatzeko Batzorde Teknikoa.
- o Hizkuntza Politikaren gaineko gaietan Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin koordinatzeko Batzorde Teknikoa.

Batzorde tekniko hauek, batz bestea, hiru hilerik behin batzen dira.

#### **Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren Negoziazio Batzordea**

Langileen ordezkariekin elkartzeko eta Planaren nondik norakoaren berri emateko tokia izango da.

Osaera:

- o Presidentea: Giza Baliabideen zuzendaria
- o Idazkaria: Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntzako atalburua
- o Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria
- o Ertzaintzaren zuzendaria

## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.2 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana

- o Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria
- o Sindikatu Harremanetarako Arloaren burua
- o Ertzaintzaren hizkuntza normalkuntza gaietarako koordinatzailea
- o Ertzaintzan ordezkariak duten sindikatuen ordezkari bana
- o Euskararen Erabilera Planaren Berriazko Batzorde Teknikoen ordezkaria

Batzordea idazkariak deiturik bilduko da. Hona hemen batzordearen funtzio nagusiak:

- o Langileen ordezkariak informatzea
- o Egindako lanak baloratzea
- o Etorkizunera begira proposamenak azaltzea eta jasotzea

#### Talde Eragilea

Egitura berri hau trantsizio gisa proposatzen da, hau da, Ertzaintzak euskararen kudeaketa bere sisteman integratu bitartean.

Osaera:

- o Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ordezkariak
- o Ertzaintzaren Zuzendaritzaren ordezkaria
- o Ertzaintzaren hizkuntza normalkuntza gaietarako ordezkaria

Bere egitekoa izango da:

- o Urteko egitasmoen segimendu zehatza egitea
- o Neurri zuzentzaileak proposatzea
- o Baleude, arazo zehatzak kudeatzea



## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.3 Ekintzak, erronken eta ardatzen arabera sailkatuta

#### 4.3.1 Lehenengo ardatza

A1 - Ertzainen euskara-gaitasuna	
Ertzaingai berrien euskara-maila eta hizkuntza-portaera egokia bermatzea	
<b>A1-E1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako ertzaingaienezko hautaprobetan euskarazko ezagutza bermatzeko gutxieneko mailak zein izan behar duen aztertu.</li> <li>o Ertzaingaien prestakuntza-aldian gainerako edukiekin batera haien euskara-maila egokia izan behar duela barneratzeko berariazko saioak egin.</li> <li>o Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia uzterakoan praktiketako ertzainek EAEko bi hizkuntza ofizialak egoki jakin eta erabili behar dituztela ikusarazteko saioak egin.</li> <li>o Trebakuntza soziolinguistikoa eman.</li> <li>o Ertzaingaiak praktikak egiteko unitateetako harrera-planetan hizkuntza-irizpideak txertatu eta betearazi.</li> <li>o Ertzaingaien hizkuntza-jardueraren segimendua eta ebaluazioa egin.</li> </ul>

A1 – Ertzainen euskara-gaitasuna	
Egungo ertzainen euskara-maila handitzea eta hizkuntza-portaera hobetzea	
<b>A1-E2</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Euskararen inguruko trebakuntza eta prestakuntza jasotzeko irizpideak berrikusi eta adostu (esaterako, lehentasunezko unitateetan trebakuntza-plan orokorrak egin, beharra dutenei zuzenduta).</li> <li>o Trebakuntza eta prestakuntza jasoko duten ertzainek euskara lanean erabiltzeko betebeharra dutela adostu.</li> <li>o Berariazko trebakuntza eman (atestatuak, isunak...).</li> <li>o Lehentasunezko unitateetan trebakuntza jasotzeko irizpideak berrikusi eta lanpostuaren eta ertzainen behararen arabera antolatu.</li> <li>o Paradigma aldaketa: lantokia euskara ikasteko gunerik egokien gisa identifikatzeko metodologia aktiboak gauzatu.</li> <li>o Prestakuntza-zentro nagusietako (Arkauti, Berrozi eta Iurreta) hizkuntza-irizpide berriak adostu eta indarrean jarri.</li> <li>o Trebakuntza soziolinguistikoa eman.</li> <li>o Euskara erabiltzeko guneak baliatu eta metodologia aktiboak landu (Mintzalaguna, Eusle...) lantokian euskaraz hitz egiteko aukera errazteko eta bermatzeko.</li> <li>o Euskaraz lan egiteko baliabideak eta tresnak bateratu eta estandarizatu.</li> </ul>

## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.3 Ekintzak, erronken eta ardatzen arabera sailkatuta

A1 – Ertzainen euskara-gaitasuna	
<b>Ertzaintza bere gune soziolinguistikoaren isla izatea</b>	
<b>A1-E3</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Ingurune euskaldunetan berriazko kanpainak egin, euskara normaltasunez erabiltzen duten ertzaingaien kopurua handitzeko.</li> <li>o Soziolinguistikoki Ertzaintzak dituen jatorri-defizitak gainditzeko bestelako neurriak hartu.</li> <li>o Ertzaintzaren irudi euskalduna ekarriko duten neurriak bultzatu.</li> </ul>

#### 4.3.2 Bigarren ardatza

A2 – Euskararen erabilera herritarrekin eta lankideekin	
<b>Ingurune euskaldunetan zerbitzu-hizkuntza bermatzea</b>	
<b>A2-E4</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Hizkuntza-eskakizunei derrigortasun-data berriak jarri lanpostu-zerrendan.</li> <li>o Lehenetasunezko unitate berriak izendatu.</li> <li>o Lehenetasunezko lantalde eta txanda guztietan euskaraz ondo moldatzen diren gutxieneko ertzain-kopuruak bermatu.</li> <li>o Dokumentazio eta aplikazio informatiko polizialak bi hizkuntzetan jarri, euskaraz lan egiteko aukera errazteko.</li> <li>o Harrera-planetan hizkuntza-irizpideak txertatu.</li> <li>o Ingurune euskaldunetako herritarrei zuzendutako kanpaina egin, Ertzaintzarekin harremanak euskaraz izan ditzaten sustatzeko.</li> </ul>

A2 – Euskararen erabilera herritarrekin eta lankideekin	
<b>Lehenetasunezko unitate eta eremuetan euskarazko zirkuituak bermatzea</b>	
<b>A2-E5</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Lehenetasunezko zirkuituak identifikatu eta baldintza egokiak ematen direnetan proba pilotuak egin.</li> <li>o Proba pilotuen bidez ikasitakoa gainerako lehenetasunezko unitateetan aplikatu.</li> <li>o Bileren mapa egin, euskaraz egin daitezkeenak identifikatu eta haietan euskararen erabilera bermatzeko esperientzia pilotuak egin. Elkarrizketa asimetrikoak sustatu (“ahobizi” eta “belarriprest”).</li> <li>o Bilerak euskaraz egiteko protokoloa idatzi eta zabaldu.</li> <li>o Euskaraz moldatzen diren ertzainak identifikatu eta euskarazko zirkuituetan parte hartzera bultzatu.</li> </ul>





## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.3 Ekintzak, erronken eta ardatzen arabera sailkatuta

A2 – Euskararen erabilera herritarrekin eta lankideekin	
<b>Trebakuntza- eta prestakuntza-programetan parte hartzen duten ertzainek lanean euskara erabiltzen dutela bermatzea</b>	
<b>A2-E6</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Euskararen trebakuntza eta prestakuntza jasotzeko irizpide berriak adostu.</li> <li>o Berariazko komunikazio-kanpaina abiatu euskararen gaineko trebakuntza eta prestakuntza jasotzeko irizpideak zabaltzeko.</li> <li>o Lehenetsuneko unitateetan informazio-saioak antolatu.</li> <li>o Euskararen trebakuntza eta prestakuntza jasotzen duten ertzainen erabileraren segimendua egiteko protokoloa adostu.</li> <li>o Testuak euskaraz sortzera zuzendutako estrategia ezarri.</li> </ul>
A2 - Euskararen erabilera herritarrekin eta lankideekin	
<b>Euskararen aldetik Ertzaintzak duen irudia aldatzea; herritarrek ikustea Ertzaintzak zerbitzua euskaraz ere ematen duela</b>	
<b>A2-E7</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Euskaraz moldatzen diren ertzainak identifikatzeko estrategia ezarri.</li> <li>o Horniketa-prozesuetan euskara meritua denean balio handiagoa eman.</li> <li>o Trebakuntza soziolinguistikoa eman, herritarrekin sor litezkeen gorabeheri erantzun egokia emateko.</li> <li>o Zerbitzu-hizkuntza euskaraz bermatzeko oinarritzko baldintzak ematen direnean, gizarteari begirako kanpaina egin, betiere, hala nahi dutenek Ertzaintzarekin harremanak euskaraz izan ditzaten sustatzeko.</li> </ul>
<b>4.3.3 Hirugarren ardatza</b>	
A3 - Euskararen kudeaketa	
<b>Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa-sisteman txertatzea; gainerako gaiak bezala lantzea eta Administrazioako gainerako parametroekin parekatzea</b>	
<b>A3-E8</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Ertzaintzak darabilen kudeaketa-ereduan euskararen parametroa txertatu.</li> <li>o Ertzaintzako arduradunek bere egin euskararen kudeaketa, gainerako gaiekin jokatzeko duten bezala.</li> <li>o Ohiko koordinazio-bileretan, kudeaketa-plangintzetan eta erabaki estrategikoak hartzean, hizkuntzaren aldagaia kontuan hartu eta txertatu.</li> <li>o Euskararen kudeaketa erakundearen ohiko kudeaketa-sisteman txertatzeko eredu bateratua adostu eta indarrean jarri.</li> <li>o Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak aurreikusi eta bermatu.</li> <li>o Komunikazio-estrategia eraginkorra adostu eta gauzatu.</li> <li>o Euskararen kudeaketa ebaluatzeko mekanismoak ezarri.</li> </ul>

## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.3 Ekintzak, erronken eta ardatzen arabera sailkatuta

A3 – Euskararen kudeaketa	
Ertzaintzaren Zuzendaritzak eredugarritasunez eta koherentziaz jokatzeko	
<b>A3-E9</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Dinamika espezifikoaren bidez unitateetako lidergoa landu, euskararen erabileran eragiteko.</li> <li>o Unitateetako buruei Plana behar bezala garatzen laguntzeko, segimendubilerak antolatu.</li> <li>o Lehen hitza euskaraz: ahal den egoera guztietan euskaraz aritzeko konpromisoa hartu.</li> <li>o Bileren mapa egin, euskaraz egin daitezkeenak identifikatu eta haietan euskararen erabilera bermatzeko elkarrizketa asimetrikoak sustatu (“ahobizi” eta “belarriprest”)</li> <li>o Agerraldi publikoetarako hizkuntza-irizpide bateratua adostu eta gauzatu.</li> </ul>

A3 – Euskararen kudeaketa	
A3 – Euskararen kudeaketa	
<b>A3-E10</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Euskararen gaineko diskurtsoa eraiki.</li> <li>o Euskararen gaian eta hizkuntzen elkarbizitzaren inguruan sakontzeko trebakuntza soziolinguistikoa antolatu: mintegiak, jardunaldiak...</li> <li>o Euskararen erabilera Ertzaintzaren balio-sisteman txertatu.</li> <li>o Ertzaintza osatzen duen komunitatearekin gutxieneko adostasuna eraikitzen ahalegindu.</li> </ul>



## 4. 2018-2027 Plangintzaldia

### 4.3 Ekintzak, erronken eta ardatzen arabera sailkatuta

#### 4.3.4 Laugarren ardatza

A4 – Erabilera-planaren gaineko informazio eta komunikazioa	
Erabilera-planaren gaineko informazio eta komunikazio eraginkorra lortzea	
